

UDAL ADMINISTRAZIOA

7

ADMINISTRACIÓN MUNICIPAL

AIZARNAZABALGO UDALA

Iragarkia

2014ko irailaren 17an Udal Osoko Bilkurak onetsi eta 2014ko irailaren 23an Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Aizarnazabalgo Udaletxeko Iragarkien Oholean «Aizarnazabalgo Kale, plazetan mahaitxoak eta eserlekuak jarri eta erabiltzea arautuko duen Udal Ordenantzaren» haserako onarpena argitara eman zen.

Hilabeteko epea iragan eta alegaziorik tartekatu ez denez, behin betikotzat onartua ematen da.

Aizarnazabal, 2014ko abenduaren 31.—Alvaro Villar Fernández, alkatea. (503)

Kaleplazetan mahaitxoak eta eserlekuak jarri eta erabiltzea arautuko duen udal ordenantza.

I. KAPITULUA

XEDEA ETA APLIKATZEKO EREMUA

1. artikulua. Xedea.

1.1. Ordenantza honen xedea da kale eta plazetan jarriko diren terrazak, mahaitxoak eta horiek osatzeko jarri ohi diren eguzkibabes, olana, albobabeski eta abarren araubide teknikoak eta juridikoa ezartzea.

1.2. Aurreko atalean adierazitako ondorio soiletarako terraza eta mahaitxotzat joko dira ostalaritza alorrean taberna, jatetxe, kafetegí eta antzekoen gisara legezkatuta dauden jardueretan aldi baterako osagarri modura jarri ohi diren mahaiak, aulkiak eta jarri eta kendu egin daitezkeen instalazio mugikorak, eta jarduera baimenaren titular diren pertsona fisiko edo juridikoei emango zaie.

1.3. Debeztatuta dago lehenengo puntuan adierazitakoez gaineko beste elementu batzuek jartzea, adibidez, hozkailuak, mostradoreak, armairuak, erakusmahaiak, banaketamakinak edo antzekoak. Era berean, debeztatuta dago kanpoaldean bozgorailuak edota megafonia jartzea.

2. artikulua. Ezarpen esparrua.

2.1. Ordenantza hau Aizarnazabalgo herrian diren erabilerak publikoko eremu guztietan (kale eta plazak, gunek libreak, berdeguneak eta abar) ezarriko da, horien titularitatea publikoa ala pribatua den kontuan izan gabe. Erabilerak publikoko izaera hau, bai egitez hala gertatu delako, bai Aizarnazabalgo Planeamendu Arau Osagarrietan dauden zehaztapenak ezartzearen ondorioz etorriko da.

2.2. Hala ere, araudi hau ez zaie ezarriko Udal Agintaritzak eskudunak agindutako ordutegi eta baldintzen arabera noizean behin egingo den ospakizunen baterako edota herri jaiekitaldien ondorioz jarriko diren instalazioei.

AYUNTAMIENTO DE AIZARNAZABAL

Anuncio

En sesión plenaria del 17 de septiembre de 2014 fue aprobada por el Ayuntamiento Pleno la «Ordenanza Municipal reguladora del uso y ocupación de la vía pública con mesas y sillas en Aizarnazabal» y publicada su aprobación inicial en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y Tablón de edictos del Ayuntamiento de Aizarnazabal el 23 de septiembre de 2014.

Transcurrido un mes sin que se hayan presentado alegaciones se da por aprobada con carácter definitivo.

Aizarnazabal, a 31 de diciembre de 2014.—El alcalde, Alvaro Villar Fernández. (503)

Ordenanza municipal reguladora del uso y ocupación de la vía pública con mesas y sillas.

CAPITULO I

OBJETO Y AMBITO DE APLICACIÓN

Artículo 1. Objeto.

1.1. El objeto de la presente ordenanza es establecer el régimen técnico y jurídico de la instalación sobre la vía pública de terrazas, veladores, e instalaciones complementarias de unos y otros tales como toldos, parasoles o protecciones laterales.

1.2. A los solos efectos de lo señalado en el apartado anterior, se entienden como terrazas y veladores el conjunto de mesas, sillas e instalaciones móviles provisionales que sirven de complemento temporal a una actividad legalizada del ramo de hostelería tales como bares, restaurantes, cafeterías y similares, siendo otorgada a las personas físicas o jurídicas titulares de la licencia de actividad.

1.3. Queda prohibida la instalación de otros elementos distintos de los señalados en el punto primero, tales como refrigeradores, mostradores, armarios, vitrinas, máquinas expendedoras o similares. Queda prohibida también la instalación de altavoces o megafonía exterior.

Artículo 2. Ámbito de aplicación.

2.1. La presente ordenanza es aplicable a todos los espacios (vía pública, espacios libres, zonas verdes, etc.) de uso público en el municipio de Aizarnazabal, sean de titularidad pública o privada. Esta condición de uso público vendrá determinada en función tanto de la situación de hecho, como por aplicación de las determinaciones de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Aizarnazabal.

2.2. No obstante, esta normativa no será aplicable a las instalaciones establecidas con motivo de celebraciones ocasionales y de actos festivos populares, con sujeción al calendario y requisitos establecidos por la Autoridad Municipal competente.

II. KAPITULUA

BAIMENA EMATEKO BALDINTZAK

3. artikulua. *Lizentzia eskaera.*

3.1. Mahaitxoak eta aulkiak, eta horien elementu osagarriak jartzeko alde zurretik Udalaren baimena beharko da.

3.2. Ondorio horretarako, interesatuak dagokion eskaria egin beharko du, eta bertan, adierazi zenbat mahai eta aulki jarri nahi dituen. Halaber, eguzkibabes, olana, albobabeski eta gainerako elementu osagarriak jartzeko ere baimena eskatu beharko du.

4. artikulua. *Ebazpena.*

4.1. Eskabidea Ordenantza honetan zehaztutako baldintzen arabera egin ondoren, txosten teknikoa eta juridikoa egin eta gero, eskumena duen Udal Organoak eskabide horren gaineko ebazpena emango du hilabeteko epean.

4.2. Baimenagirian honako hauek zehaztuko dira: instalazioen eta elementu osagarrien baldintzak, hartuko den azalera, mahai eta aulkien kopurua, emakidaren indarraldia eta egoki irizitako gainerako xehetasun guztiak.

4.3. Eskatutako baimena ematea ez balitz egoki iriziko, edo eman beharreko baimena eskatutakoarekin bat ez baletor, Udalak hitz egiteko aukera emango dio interesatuari, horrek egoki irizten diona adierazi ahal izan dezan.

4.4. Jabari publikoa hartzeagatik ordaindu beharreko tasa edo Ordenantza honen arabera jarritako isunak ordaintzen ez baditu, baimena ukatu ahal izango zaio eskatzaileari.

4.5. Lehenengo puntuan adierazitako epeak dagokionean, akatsak zuzentzeko luzapen epea barne igaro egingo balira esanbidezko ebazpenaren jakinarazpenik egin gabe, baimen eskaera administrazioaren isiltasunagatik ezetsia izan dela ulertuko da (Toki Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua arautzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren 9.7.b. artikulua eta Herri Administrazioen Araubidearen eta Administrazio Prozedura Erkidearen gaineko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 43.2. artikulua).

5. artikulua. *Lizentziaren baldintzak.*

5.1. Lizentziak beti jabetza eskubidea salbu eta hirugarrenen kalterik gabe emantzat ulertuko dira, eta ezingo da haietaz baliatu onuradunak bere lanean izan ditzakeen erantzukizun zibil edo penalak murrizteko edo haiei ihes egiteko, eta baimenduna ez dute salbuesten, beste inolako baimenik eskatu beharko balu, haiek lortu behar izatetik.

5.2. Lizentziak beti izaera diskrezionala eta prekariokoa izango du, eta udal agintaritzak agindu ahal izango du beti ere arrazoiak adieraziz eremu publikotik kentzeko baimendutako instalazioak, partikularraren kontura, baldin eta trafikoa, urbaniziolanek edo interes orokorreko beste edozein arrazoik hala eskatuko balu, eta hori inolako kalteordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

5.3. Lizentzia jaso duena derrigorturik dago instalazioaren ondorioz kale edo plazetan gerta litezkeen kalte guztiak konpontera.

6. artikulua. *Indarraldia.*

6.1. Emandako lizentziek urte beteko indarraldia izango dute. Beraz, lizentzia eskaerak urtero edo epealdi bakoitzean berritu beharko dira, eta epealdi bakoitza amaitzen denean galdu egingo dute beren indarra.

6.2. Behin indarraldia amaitutakoan, lizentziadunak baimena berritzea eskatu ahal izango du. Bestela, establezimenduaren titularrak instalazio hori kendu egin beharko du, eta eremu publikoa hasieran zegoen bezala utzi.

CAPITULO II

CONDICIONES DE AUTORIZACIÓN

Artículo 3. *Solicitud de licencia.*

3.1. La instalación de mesas y sillas y sus elementos auxiliares queda sujeta a la previa obtención de la autorización municipal.

3.2. A estos efectos, la parte interesada deberá presentar la correspondiente solicitud, expresando el número de mesas y sillas que pretende instalar. Asimismo solicitará licencia para la instalación de toldo, parasoles, protecciones laterales o demás elementos auxiliares.

Artículo 4. *Resolución.*

4.1. Formulada la petición en los términos exigidos en la presente Ordenanza, y previo informe técnico y jurídico, se resolverá por el Organo Municipal competente en el plazo de un mes.

4.2. En el documento de la licencia se fijarán las condiciones de la instalación y elementos auxiliares, superficie a ocupar, número de mesas y sillas, periodo de vigencia de la concesión y demás particularidades que se estimen necesarias.

4.3. Si no se considerase oportuna la concesión de la licencia solicitada o si la autorización a conceder supusiera una variación con respecto a lo solicitado, el Ayuntamiento dará audiencia a la parte solicitante, a fin de que ésta pueda alegar lo que estime oportuno.

4.4. El impago por la parte solicitante de la tasa correspondiente a la ocupación del dominio público o de las multas impuestas con arreglo a la presente Ordenanza podrá motivar la denegación de la licencia.

4.5. Si transcurrieran los plazos señalados en el número 1, con la prórroga del periodo de subsanación de deficiencias, en su caso, sin que se hubiere notificado resolución expresa se entenderá denegada la licencia por silencio administrativo (Artículo 9.7.b del Decreto de 17 de junio de 1955, por el que se aprueba el Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales, y 43.2. de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común).

Artículo 5. *Condiciones de la licencia.*

5.1. Las licencias se entenderán siempre otorgadas, salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio del de terceras partes, no pudiendo ser invocadas para excluir o disminuir la responsabilidad civil o penal en que hubiera incurrido la parte beneficiaria en el ejercicio de sus actividades, ni eximen a su titular de la necesidad, en su caso, de obtener otras autorizaciones.

5.2. La licencia tendrá siempre carácter discrecional y de precario y la autoridad municipal podrá ordenar, de forma razonada, la retirada de la vía pública, y a costa del particular, de las instalaciones autorizadas, cuando por circunstancias de tráfico, urbanización o cualquier otra de interés general así lo aconsejen, y ello sin derecho a indemnización alguna.

5.3. La persona titular de la licencia queda obligada a reparar cuantos daños se produzcan en la vía pública como consecuencia de la instalación.

Artículo 6. *Vigencia.*

6.1. Las licencias otorgadas tendrán una duración anual. Por tanto, las solicitudes de licencia deberán renovarse anualmente o por cada temporada perdiendo automáticamente vigencia al finalizar cada período.

6.2. Transcurrido el periodo de vigencia, la persona titular de la licencia podrá solicitar su renovación, y en otro caso, el del establecimiento correspondiente, deberá retirar toda la instalación devolviendo la vía pública a su estado anterior.

6.3. Hurrengo denboraldi baterako lizentzia berritzea eskatzen denean, aurreko eskaritik aldaketa handirik ez baldin bada gertatu, horren berri eman beharko da eta horrelakoetan ez da dokumentu osagarriarik aurkeztu beharko, baldin eta aurreko baimena ematearen oinarrian leudekeen inguruabarrak aldatu ez badira.

7. artikulua. Instalazioaren titularraren betebeharrak.

7.1. Mahai eta aulkiekin zein gainerako instalazio osagarriekin (itzal oihal, itzalki edo eguzkitako mugikorrek edo, balegokio, alboetako babesekin) lurra hartzeak ezingo du, inola ere, Udalak baimendutako luzezabalera gainditu eta debekatua dago kanpoan zerbitzatzeko barra, makina, erakusmahai, kiosko eta lurrari lotutako itzal oihal edo albobabesak jartzea.

7.2. Okupazio lizentzien titularrek ondorengo betebeharrak eta baldintzak errespetatu beharko dituzte:

a) Izaera orokorreko betebeharrak, eta Ordenantza hau betetzearen ondorioz sortzen direnez gain, lizentziaren titular den pertsonak garbi, egoera onean, txukun eta seguru gorde beharko ditu baimenaren bidez okupa dezakeen lurzorua, instalazioa bera eta horren elementu osagarriak, horretarako, beharrezkoak diren bitarteko guztiak jarri, hala nola, paperontziak, urrez betetako hautsontziak, e.a.

b) Dagokion establezimenduak bere kategoriaren arabera indarrean duen baimenaren arabera zerbitza ditzakeen kontsumizio eta artikulua bakarrik zerbitza ahal izango ditu mahai eta aulkietan.

c) Baimenaren titularrak, gainerako auzokideek lasai atsedean hartzeko duten eskubidea errespetatu dadila zaindu beharko du eta, hartarako, bere terrazan iskanbila, liskar eta zarata handiegirik ez izateko behar dena egingo du, eta areago gaueko 22:00etatik aurrera. Edonola ere, debekatua dago kanpoaldean bozgorailuak edo megafonia jartzea.

d) Behin mahaiak eta aulkiak jasotzen direnean, baimenaren titularrari dagokio mahaiak horiekin hartuta izan duen eremua behar bezala garbituta uztea. Mahaitxoak eta aulkiak jasotzea, Ordenantza honetako 12. atalean xedatu den ordutegia amaitu ondorengo hogeita hamar minutuetan egingo da. Ezingo dira mahai eta aulkiak lokalaren kanpoaldean pilatuta utzi.

e) Baimenaren titularrak izango du instalazioaren ohiko edo ohiz kanpoko erabileraren ondorioz sor litezkeen kalte guztiak, istripuen, ezbeharren eta abarren gaineko erantzukizuna eta, ondorioz, dagozkion erantzukizunak bere gain hartu beharko ditu.

7.3. Instalazioaren titularrak, Udalari ordaindu egin beharko dizkio legezkoen tasa eta gainerako ordainkizun guztiak, Zergaordenantzetan ezarritako kopuruetan eta moduan.

III. KAPITULUA

KALE ETA PLAZAK MAHAI ETA AULKIZ HARTU ETA ERABILTZEKO BAIMENA EMATEKO IRIZPIDEAK

8. artikulua. Muga orokorrak.

8.1. Debekatua dago mahaiak eta aulkiak jartzea hiru metro eta erdi (3,5 m.) baino zabalera txikiagoa duten portxe, espaloi edo oinezkoentzako espazioetan. Era berean, debekatua dago halakorik jartzea berdegune eta lorategietan, oinezkoentzako pasabideen aurrean, jende asko ibili ohi den lokalaren larrialdietarako irteeren aurrean, eta etxebizitzetarako sarrerak edota lokaletara sartzeko guneak oztapatuz.

8.2. Horretarako eskuduntza duen udalagintaritzak, era berean, mahai, aulki eta gainerako elementu osagarriak jartzea debekatu ahal izango du herriinteresak hala eskatzen duenean, bidesegurtasunagatik, herrilanengatik edo antzeko beste edo-

6.3. Las solicitudes de renovación de licencia para posteriores periodos que no supongan cambios sustanciales en la misma, deberán hacerlo constar, no siendo necesario aportar documentación complementaria salvo que se hayan modificado las circunstancias que dieron origen a aquella.

Artículo 7. Obligaciones del titular de la instalación.

7.1. La ocupación de sillas y mesas e instalaciones auxiliares como toldos, sombrillas o parasoles móviles y protecciones laterales, no podrá en ningún caso sobrepasar la superficie autorizada por el Ayuntamiento, estando prohibida la instalación de barras exteriores, vitrinas, máquinas, quioscos, así como toldos, sombrillas o protecciones laterales ancladas al suelo.

7.2. Las personas titulares de las licencias de ocupación deberán respetar las siguientes obligaciones y condiciones:

a) Sin perjuicio de las obligaciones de carácter general, y de las que se deriven de la aplicación de la presente ordenanza, la persona titular de la licencia queda obligada a mantener tanto el suelo cuya ocupación se autoriza, como la propia instalación y sus elementos auxiliares, en perfectas condiciones de limpieza, seguridad y ornato, utilizando para ello todos los medios necesarios, tales como papeleras, ceniceros de agua, etc.

b) En las mesas y sillas solo se podrán servir consumiciones y artículos para los que el establecimiento esté autorizado de acuerdo con su categoría.

c) La persona titular de la licencia velará para que se respete el derecho a la tranquilidad del resto del vecindario por lo que no permitirá escándalos, ruidos y ruidos excesivos en su terraza, con especial atención a partir de las 22:00 horas. En todo caso queda prohibida la instalación de altavoces o megafonía exterior.

d) Una vez retiradas las mesas y sillas corresponderá a la persona titular de la licencia el dejar la zona ocupada en perfecto estado de limpieza. La recogida de las mesas y sillas se realizará dentro de los treinta minutos siguientes a la limitación del horario establecido en el artículo 12 de la presente Ordenanza. No podrán almacenarse las sillas y mesas en el exterior del local.

e) La persona titular de la licencia será responsable de todos los daños y perjuicios que se originen por el uso normal o anormal de las instalaciones, accidentes, siniestros, etc. asumiendo la responsabilidad que corresponda.

7.3. La persona titular de la instalación abonará al Ayuntamiento las tasas y demás exacciones que pudieran corresponderle, en la cuantía y forma establecidas por las Ordenanzas fiscales.

CAPÍTULO III

CRITERIOS PARA LA AUTORIZACIÓN DEL USO DE LA OCUPACIÓN DE LA VÍA PÚBLICA CON MESAS Y SILLAS

Artículo 8. Limitaciones generales.

8.1. Queda prohibida la colocación de mesas y sillas en porches, aceras o espacios peatonales que tengan una anchura inferior a tres metros y medio (3,5 m). También queda prohibida su colocación en zonas verdes o jardines, frente a pasos peatonales, frente a las salidas de emergencia de locales de pública concurrencia, u obstaculizando el acceso a locales y portales de viviendas.

8.2. La autoridad municipal competente podrá asimismo prohibir la instalación de mesas y sillas y demás elementos auxiliares en aquellos casos que así lo exija el interés público, por razones de seguridad viaria, obras públicas, o cualesquiera

zein gorabeherarengatik, baina debeku hori behar bezala arazoitu beharko da. Era berean, mahai eta aulkiak aldi baterako kentzeko ere agindu ahal izango du, kirol, kultura edo beste eraren bateko jarduerak egin beharko balira, aipatutako instalazioek haiei eragingo baliote, edota auzokideei behin eta berriro eragozpenak sortzen badizkiete, inolako kalteordain izateko eskubiderik gabe, jardueraren titularrari entzun ondoren.

9. artikulua. Lurra hartzeko baldintzak.

9.1. Luzeran gehienez hartu ahal izango den zatiak, albo babesak barne direla, ezingo du jarduera nagusia burutzen den establezimenduen fatxadaren luzera gainditu, jarduera horrekin mugakide diren jabeek idatziz emandako baimena izan ezean eta, honelakoetan, Udalak egoera hori zehatzmehatz aztertuko du.

9.2. Aurreko atalean jasotako muga orokorren kalterik gabe, mahai eta aulkiak eta horien elementu osagarriak jartzeko ondorengo baldintzei lotuko zaio:

a) Jarritako instalazioak, une orotan eta kasu guztietan, oinezkoentzako igarobideak gutxienez bi metroko (2 m.) zabalera librea izan dezala bermatuko du.

b) Oinezkoentzako igarobide libre handiagotu egin ahal izango du Udalak, behar bezala arrazoituta, oinezkoen joanetorri handiak hala eskatuko balu.

c) Plaza eta espazio libre berezietan instalazioak sei metroko (6 m.) sakonera izango du gehienez eta, nolana ere, ezingo du aipatutako espazio publikoaren fondoaren ehuneko berrogeita hamarra (%50) baino handiagoa izan.

d) Alde Zaharrean, oinezkoentzako kaleetan, mahaitxo eta aulkiekin hartutako eremuak bi metroko fondoa (2 m) izango du gehienez.

e) Edozein eratan ere, etxesarrera, lokal eta oinezkoentzako igarobideetarako irisgarritasuna bermatu egingo da beti.

f) Udalaren zerbitzu teknikoek lekuan bertan zehaztu ahal izango dute gehienez har daitekeen luzezabalera. Zehazte hori, lurrean markatuko da, zinta itsasgarriarekin edota kentzen den pinturarekin, eta inola ere ezingo da kendu edo aldatu, Udalaren baimenik gabe.

9.3. Udalak baimena eman ahal izango du azalera hori handitzeko Herriaren zaindariaren jaietan, edo beste festaren batzuetan, beti ere espazio libreak hori egiteko aukera emango balu. Horretarako, interesdunek eskaria aurkeztu beharko dute, behar adinako aurrerapenarekin, eta, beharrezko izango balitz, azalera handitze horren eragina jasango duten etxepeko jabeekideen baimena izan beharko du.

10. artikulua. Estalkiak eta alboetako babesak.

10.1. Mahai eta aulkiekin hartutako lurzorua fatxadari atxikitako itzaloihaletan edo itzalki, eguzkitako edo antzeko elementu mugikorrek babestu ahal izango da, baina elementu horiek, nolana ere, aldi baterakoak eta erraz kentzeko modukoak izan beharko dute. Estaltze edo babeste hori lurrari modu finkoan lotutako elementuekin egitea debekatua dago, industriarako hirieremuan kokatuak dauden establezimenduen gune pribatuetan izan ezik, horietan Udalak, arrazoitutako iritzian oinarrituta, babessistema finko arin eta behinbehinekoak jartzeko baimena eman ahal izango baitu.

10.2. Itzal oihala bilgarri edo tolesgarrietakoa izango da eta lurretik haren beheko aldera izango den altuera, behin zabalduetakoan, bolanteak eta alboetako ertzak barne, ez da bi metro eta hogeita bost zentimetro (2,25 m.) baino txikiagoa izango. Itzal oihalak zabaldu eta jasotzeko erabiliko diren euskarri eta gainerako elementuak altuera txikiagora jarri ahal izango dira, baina gehienez 0,20 metro atera ahal izango dira fatxadaren lerrotik. Zabaltze eta tolestatzeko sistemak isila izan beharko du.

otras circunstancias similares, debiendo fundamentarse debidamente dicha prohibición. También podrá ordenar la retirada temporal de mesas y sillas por motivo de la celebración de actividades deportivas, culturales o de otra índole, cuando se vean afectadas por dicha instalación o debido también a la reiteración de molestias al vecindario, todo ello sin derecho a indemnización alguna y previa audiencia a la persona titular de la actividad.

Artículo 9. Condiciones de ocupación.

9.1. El desarrollo longitudinal máximo de la instalación, incluidas, en su caso, las protecciones laterales, no rebasará la longitud de la fachada del establecimiento soporte de la actividad principal, salvo autorización por escrito de las partes colindantes de esta, en cuyo caso el Ayuntamiento estudiará puntualmente su concesión.

9.2. Sin perjuicio de las limitaciones generales recogidas en el artículo anterior, la colocación de sillas y mesas y sus elementos auxiliares, se ajustará a las siguientes condiciones de ocupación:

a) La instalación deberá garantizar, permanentemente y en todo caso, que los pasos peatonales tengan una anchura libre mínima de dos (2) metros.

b) El paso peatonal libre podrá ser ampliado a juicio municipal razonado, cuando lo requiera la intensidad del tráfico de viandantes.

c) En las plazas y espacios libres singulares la instalación tendrá un fondo máximo de seis (6) metros y no podrá exceder del cincuenta por ciento (50%) del fondo de dicho espacio público.

d) En las calles peatonalizadas el área ocupada por mesas y sillas tendrá un fondo máximo de dos (2) metros.

e) En cualquiera de los casos quedará asegurada la accesibilidad permanente a portales, locales y pasos de peatones.

f) Los servicios técnicos municipales podrán delimitar sobre el lugar la superficie máxima de ocupación autorizada. Dicha limitación se hará sobre el suelo con cinta adhesiva o pintura borrrable, que bajo ningún concepto podrá ser retirada o alterada sin autorización municipal.

9.3. El Ayuntamiento podrá conceder ampliaciones de las superficies autorizadas de terraza con ocasión de las fiestas patronales u otros festejos, siempre y cuando la disponibilidad de espacios libres lo permita. A tal efecto, las partes interesadas deberán presentar la solicitud con suficiente antelación, debiendo disponer, en su caso, de la autorización de la comunidad del vecindario afectada por la ampliación.

Artículo 10. Cubriciones y protecciones laterales.

10.1. El área delimitada por las mesas y sillas podrá cubrirse con toldos anclados a fachada o con elementos móviles tales como sombrillas, parasoles o similares, en cualquier caso, de carácter provisional y fácilmente desmontables. Se prohíbe su cubrición con elementos fijamente anclados al suelo, con excepción de los espacios privados de los establecimientos ubicados en zona urbana industrial, donde el Ayuntamiento, a juicio motivado, podrá conceder autorización para cubriciones fijas ligeras y provisionales.

10.2. El toldo será del tipo enrollable o plegable y la altura desde el suelo a su parte inferior, una vez desplegado e incluido volantes y costados laterales, no será inferior a dos metros y veinticinco centímetros (2,25 m). Solo podrán situarse a menor altura y con un saliente máximo de 0,20 m. desde la línea de fachada, los soportes y demás elementos previstos para extender y plegar los toldos. El sistema de extendido y plegado será del tipo silencioso.

10.3. Eguzkioihalaren estetika hura jarriko den inguruarekin bat etorri beharko du. Ez da publizitaterik jartzea onartuko eguzkioihaletan.

10.4. Itzal oihala eta hura erabiltzeko mekanismoa fatxada lotzea dardaren aurkako elementuekin eta eraikinaren estrukturatik isolatzeko elementuekin egin beharko da, zabaldu eta jasotzerakoan estrukturan bidez zarata edo dardararik ez dadin hedatu mugakide diren etxebizitza eta lokaletara. Edonola ere, itzal oihalaren eraginez heda daitezkeen zaratek ezingo dituzte honako neurriak gainditu mugakide diren etxebizitzetako logela, sukalde eta egongeletan:

– Gaueko ordutegian (22:00etatik 08:00ak arte): 30 dB(A) maila jarrai baliokidean (Leq 60seg) eta 35 dB(A) gehieneko balio moduan (Lmax).

– Eguneko ordutegian (08:00etatik 22:00ak arte): 40 dB(A) maila jarrai baliokidean (Leq 60seg) eta 45 dB(A) gehieneko balio moduan (Lmax).

10.5. Itzal oihala fatxadan etxepe guztiarenak diren elementuen gainean jarri nahi bada, jabeakide elkartearen baimena beharko da aurrez, balegokio.

10.6. Udalak, legokiokenean, alboetan haizearen aurkako elementu babesgarriak jartzeko baimena eman ahal izango du, inguruarekin ondo datozela iritziko balitz.

Inguruarekin bat datozela erabakiko balitz, baimen horiek emateko baldintza izango da alboetako babeselementu horiek mugikorrek eta erraz kentzeko modukoak izatea, ez daitezela lurrari era iraunkorrean itsatsiak izan eta bermatzen bada egunero kendu eta jaso egingo direla, terrazako gainerako altzariekin batera. Albobabesen altuera ez da izango 1,80 metro baino gehiagokoa. Ez da publizitaterik onartuko albobabesetan.

IV. KAPITULUA

ZARATAK ETA ORDUTEGIA

11. artikulua. Zaratak.

Debekaturik dago bizilagunen atsedena zarata, oihu edo bestelakoeekin eragozte, areago 22:00etatik aurrera, eta indarrean den legeriak zehaztutako zaratahedapeneko mailak errespetatu beharko dira.

12. artikulua. Erabilerordutegiak.

12.1. Eusko Jaurilaritzaren Barne sailak ordutegien gainean emandako 296/1997 Deretuaren bigarren aldaketa egiten duen martxoaren 13ko 36/2012 Dekretuaren 12.8. artikuluekin bat, eta beti ere udalaren garbiketara lanak oztapatzen ez badira, instalazioen ordutegia honako hau izango da:

- Igandetik ostegunera, 10:00etatik 24:00etara.
- Ostiraletan, 10:00etatik 00:30etara.
- Larunbatetan eta jai bezperetan, 10:00etatik 01:00etara.

Udalak, horretarako duen organo eskudunaren bitartez eta interes orokorrean oinarrituta, aurrez aipatutako ordutegi hori aldatu ahal izango du. Dena den, egoera bakoitzean bete beharreko ordutegia baimena emango duen ebazpenean bertan adieraziko da.

12.2. Herriko zaindariaren jaietan edo beste ospakizun edo egun berezietan 1. puntuan ezarritako ordutegiari beste bi ordura arte luzatu ahal izango zaio, baina beti gaueko hirurak inolaz ere gainditu gabe.

12.3. Establezimendura sartzeko ateek atea itxeko malguki edo mekanismoa izan beharko dute, automatikoki itxiko direla bermatzeko. Jardueraren titularrak zaindu egin beharko

10.3. La estética del toldo será acorde con el entorno donde se instale. No se admiten reclamos publicitarios en los toldos.

10.4. La fijación del toldo y su mecanismo de maniobra a la fachada se realizará con elementos antivibratorios y aislantes de la estructura del edificio, de forma que las maniobras de plegado y desplegado no transmitan ruidos y vibraciones por vía estructural a las viviendas y locales colindantes. En cualquier caso las transmisiones de ruido imputables al toldo no superarán los siguientes valores en los dormitorios, cocinas y salas de estar de las viviendas colindantes:

– Horario nocturno (22:00 H a 08:00 H): 30 dB(A) en nivel continuo equivalente (Leq 60seg) y 35 dB(A) en los valores máximos (Lmax).

– Horario diurno (08:00 H a 22:00 H): 40 dB(A) en nivel continuo equivalente (Leq 60seg) y 45 dB(A) en los valores máximos (Lmax).

10.5. La instalación del toldo sobre elemento común de fachada requerirá, en su caso, la autorización previa de la comunidad de propietarios y propietarias.

10.6. El Ayuntamiento podrá autorizar puntualmente la instalación de protecciones laterales cortavientos si se consideran acordes con el entorno.

En el caso de que se consideren acordes, dichas autorizaciones estarán supeditadas a que las protecciones laterales sean móviles y fácilmente desmontables, no vayan fijamente ancladas al suelo y se garantice que van a ser desmontadas y retiradas diariamente junto con el resto del mobiliario de la terraza. La altura de las protecciones laterales no será superior a 1,80 m. No se admiten reclamos publicitarios en las protecciones laterales.

CAPÍTULO IV

RUIDOS Y HORARIOS

Artículo 11. Ruidos.

Estará prohibido perturbar el reposo del vecindario con ruidos, gritos u otras molestias, con especial atención a partir de las 22:00 horas, debiendo respetarse los niveles de transmisión de ruidos establecidos por la normativa vigente.

Artículo 12. Horarios de uso.

12.1. En concordancia con el art. 12.8 del Decreto 36/2012, de 13 de marzo, de segunda modificación del Decreto 296/1997 de horarios dispuesto por el Departamento de Interior del Gobierno Vasco, y siempre que no se entorpezcan las tareas de limpieza municipal, el horario de instalación será el siguiente:

- De domingo a jueves, desde las 10:00 H hasta las 24:00 H.
- Viernes, desde las 10:00 H hasta las 00:30 H.
- Sábados y vísperas de festivos, desde las 10:00 H hasta las 01:00 H.

El Ayuntamiento, a través de su órgano competente y en base al interés general, podrá modificar el horario descrito anteriormente. No obstante, el horario aplicable en cada caso será confirmado en la correspondiente resolución por la que se conceda la autorización.

12.2. Con ocasión de las fiestas patronales u otros festejos o acontecimientos especiales el horario podrá incrementarse hasta dos horas sobre el horario de cierre establecido en el punto 1, sin que en ningún caso puedan rebasarse las tres de la madrugada.

12.3. Las puertas de acceso al establecimiento dispondrán de muelle o mecanismo cierrapuertas que aseguren el cierre automático. La persona titular de la actividad deberá vigilar

du, bereziki, atea automatiko ixteko sistemak gaueko orduetan (gaueko 22:00etatik aurrera) funtziona dezala. Era berean, establezimenduaren leihoek itxita egon beharko dute.

12.4. Behin erretiratzeko ordua iristen denean, instalazio-tik alde egin beharko dute bezeroek, eta establezimenduko langileak bakarrik geldituko dira bertan, instalazioa erretiratu eta garbitzeko lanak egiten, zaratarik atera gabe, inolaz ere.

V. KAPITULUA

DIZIPLINAARAUBIDEA

13. artikulua. Baimenik gabeko instalazioak.

13.1. Dagozkion zigorrak ezartzearen kalterik gabe, Udal Agintaritzak, interesdunari adierazi nahi duena entzuteko epea eman ondoren, berehala kendu ahal izango ditu Ordenantza honen 2. artikuluan zehaztutako lekuetan Udalaren baimenik gabe jarritako terraza, mahai, aulki, mahaitxo eta gainontzeko elementu osagarriak, eta horretarako zehaztutako toki batean gordeko ditu, egoera horren erantzukizuna duen pertsonaren kontura eta arauz agindutako isunak jartzearen kalterik gabe, eta horrek ez dio inolako kalteordainik jasotzeko eskubiderik emango. Aipatutako jarduera horien ondoren ustezko arauhausleak 5 eguneko epean instalazioa legezztatzea eskatu ahal izango du, hori egin ahal izango balitz.

13.2. Baimenaren indarraldia bukatu ondoren, mahai-aulkiek (terrazek) eta gainerako elementu osagarriek jarrita jarraituko balute, egoera hori Udalaren baimenik ez izatearen egoerarekin parekatuko da, zigorrak jartzearen ondorio guztietarako.

14. artikulua. Lizentziaren baldintzak ez betetzea.

Emandako lizentzian zehaztutako baldintzak edo Ordenantza honetan jasotako aginduak betetzen ez baldin badira, elkarren artean independenteak diren zigor hauek jarri ahal izango dira:

a) Isuna. 15., 16. eta 17. artikuluan zehaztutako irizpideen arabera mailakatuko dena.

b) Baimena ezeztatzea, eta ondorioz, instalazioa berehala kentzea, Udalak egindako eskabideei uko egiten bazaie edo baldintzak behin eta berriro betetzen ez badira.

c) Aurreko paragrafoan aurreikusitako lizentzia ezeztatzen baldin bada, establezimenduak etorkizunean Ordenantza honetan araututako baimenak lortzeko gaitasuna galduko du, bi urteko eperako, gehienez ere.

15. artikulua. Arau hausteak.

Ordenantza honen ondorioetarako, arau hausteak arinak, larriak eta oso larriak izango dira.

15.1. Honako hauek izango dira arau hauste arinak:

a) Baimendutakoak baino elementu (mahai, aulki edo bestelako elementu osagarri) gehiago jartzea.

b) Baimendutako tokitik kanpora jartzea mahaiak, aulkiak edo elementu osagarriak.

c) Elementu horiekin hartutako tokia behar den garbitasun, txukuntasun eta segurtasunbaldintzetan ez gordetzea.

d) Ordenantza honetan ezarritako araudia ez betetzea.

15.2. Honako hauek izango dira arau hauste larriak:

a) Terrazek eta mahaitokiek baimendutako ordutegitik kanpo jarrita jarraitzea.

b) Baimenik gabe terrazak, mahaitokiak eta gainontzeko elementu osagarriak jartzea.

especialmente que el cierre automático de las puertas esté operativo en el período nocturno, a partir de las 22:00 h. De la misma forma, las ventanas del establecimiento deberán permanecer cerradas.

12.4. Llegada la hora establecida para la retirada, la instalación deberá estar totalmente desalojada de clientela, permitiéndose únicamente la permanencia de personas empleadas del local en tareas propias de la retirada y limpieza de la instalación que en ningún caso podrán generar ruidos.

CAPÍTULO V

RÉGIMEN DISCIPLINARIO

Artículo 13. Instalaciones sin licencia.

13.1. Sin perjuicio de la imposición de las sanciones oportunas, la autoridad municipal, previa concesión de un periodo de audiencia a la parte interesada, podrá retirar de forma inmediata las mesas y sillas (terrazas), veladores y cualquier elemento auxiliar instalados sin licencia en los espacios a que se refiere el artículo 2 de la presente Ordenanza y proceder a su depósito en lugar designado para ello, a costa de la persona responsable sin perjuicio de la imposición de las sanciones reglamentarias y sin que ello dé derecho a indemnización alguna. Con posterioridad a estas actuaciones la parte infractora podrá solicitar en el plazo de 5 días la legalización de la instalación en el caso de que fuera posible.

13.2. La permanencia de mesas y sillas (terrazas) y demás elementos auxiliares, tras la finalización del periodo de vigencia de la licencia será asimilada, a los presentes efectos disciplinarios, a la situación de falta de autorización municipal.

Artículo 14. Incumplimiento de las condiciones de la licencia.

El incumplimiento de las condiciones de la licencia otorgada o de los preceptos recogidos en la presente Ordenanza, podrá dar lugar a la imposición de las siguientes sanciones independientes entre sí.

a) Multa, cuyo importe se graduará según los criterios establecidos en el artículo 15, 16 y 17.

b) La revocación de la licencia y consiguiente retirada inmediata de la instalación, en los casos de desobediencia al requerimiento municipal o de reiteración en el incumplimiento de condiciones.

c) La revocación de la licencia prevista en el apartado anterior, llevará consigo la inhabilitación del establecimiento para la obtención de futuras autorizaciones reguladas por esta Ordenanza, por un plazo máximo de dos años.

Artículo 15. De las infracciones.

A los efectos de la presente Ordenanza, las infracciones se clasifican en leves, graves, y muy graves.

15.1. Tendrán la consideración de infracciones leves:

a) Colocación de elementos (mesas, sillas u otros elementos auxiliares) excediendo el número de elementos autorizado.

b) La ubicación de mesas, sillas o elementos auxiliares fuera de la ubicación autorizada.

c) No mantener el espacio de ocupación en las debidas condiciones de ornato, seguridad y limpieza.

d) El incumplimiento de la normativa establecida en la presente ordenanza.

15.2. Tendrán la consideración de infracciones graves:

a) Mantener las terrazas y veladores fuera del horario permitido.

b) La instalación de veladores, terrazas y otros elementos auxiliares sin licencia.

c) Ordenantza honetan ezarritako baldintza teknikoak bete gabe ordentza honetan araututako elementuak jartzea.

d) Zigorespeditenteari hasiera eman zaion urtearen aurreko urtean, bi arau hauste arin egitea, eta ebazpen irmo bidez horiei zigorra jarri izana.

15.3. Honako hauek izango dira arau hauste oso larriak:

a) Zigorespeditenteari hasiera eman zaion urtearen aurreko urtean, bi arauhauste larri egitea, eta ebazpen irmo bidez horiei zigorra jarri izana.

b) Jarritako terrazekin espazio publikoaren erabilera eragozteko hura erabiltzeko eskubidea duten beste pertsonen.

c) Jarritako terrazen eraginez, espazio publikoetan gertatzen diren hondamen kasu larri eta garrantzitsuak.

16. artikulua. Zigorrak.

16.1. Ordenantza honetan jasotako arauhausteak behean jartzen den mailakatutako isunen arabera zigortuko dira:

a) Arau hauste arinek 750 euro arteko isuna izango dute.

b) Arau hauste larriek 751 eurotik 1.500 eurora bitarteko isuna eta/edo lizentzia baliogabetzea ekarriko dute, eta instalazioa berehala kenaraziko da, Udalaren eskaria betetzeari uko egiten bazaio.

c) Arau haustea oso larria bada, 1.501 eurotik 3.000 eurora bitarteko isuna eta/edo lizentzia baliogabetzea ekarriko dute, eta instalazioa berehala kenaraziko da, Udalaren eskaria betetzen ez bada, eta/edo gertatutakoaren larritasunaren arabera, hurrengo 2 urteetan gaitasuna kenduko zaio Ordenantza honen bidez araututako baimenak lortzeko.

16.2. Ondoren instalazioa legeztatutako egingo balitz, eta berriz ere arauhausterik egiten ez bada, edo Udalaren eskariei ezezkorik ematen ez bazaie, zigorra diruzkoa bakarrik izan ahalko da.

17. artikulua. Zigorren mailaketa.

Dagozkion zigorren zenbatekoa mailakatzerakoan honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Arauhaustearen izaera.

b) Sortutako edo sor zitekeen kaltearen larritasuna. Partikularrei sortutako kalteak, eta arauhausteak gizaratean izan duen eragina.

c) Arau hausteraren dolozko edo erruzko jarrera.

d) Arauhaustea berrituz egiten edo behin eta berrituz errepikatzea.

18. artikulua. Zigor espeditentea.

Jarri beharreko isunak dagozkion espeditentea eratu ondoren bakarrik ezarri ahal izango dira. Espediente hori Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigorren eskumenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakoaren arabera bideratu beharko da.

19. artikulua. Betearazte subsidiarioa.

19.1. Kale edo plazan jarriak dituen elementuak kentzeko udal aginduari Ordenantza honetan aurreikusitako egoeretakoren batean oinarritutako agindua izan beharko du jaramonik egiten ez badiu instalazioaren arduradunak, Administrazioak elementu horiek kentzeko agindua eman ahal izango du haren ordean, eta horretarako izendatutako lekura jasoko dira, eta jabeak horiek berreskuratu ahal izango ditu, dagozkion gastuak ordaindu ondoren; hori guztiori Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen gaineko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 98. artikuluan xedatua dagoenaren arabera. Dena dela, horrek ez du inongo kalteordainik jasotzeko aukerarik emango.

c) La colocación de elementos sujetos a la presente ordenanza sin respetar las condiciones técnicas establecidas en esta ordenanza.

d) La comisión de dos infracciones leves, con imposición de sanción por resolución firme, durante el año anterior al inicio del expediente sancionador.

15.3. Tendrán la consideración de infracciones muy graves:

a) La comisión de dos infracciones graves con imposición de sanción por resolución firme, durante el año anterior al inicio del expediente sancionador.

b) El impedimento del uso de un espacio público a otras personas con derecho a su utilización ocasionado con las instalaciones de las terrazas.

c) Los actos de deterioro grave y relevante de los espacios públicos causados por la instalación de las terrazas.

Artículo 16. De las sanciones.

16.1. Las infracciones de la presente Ordenanza serán sancionadas con multa de conformidad con la siguiente escala:

a) Infracciones leves con multa de hasta 750 euros.

b) Infracciones graves con multa de 751 a 1.500 euros y/o revocación de la licencia y consiguiente retirada inmediata de la instalación, en casos de desobediencia al requerimiento municipal.

c) Infracciones muy graves con multa de 1.501 a 3.000 euros y/o revocación de la licencia y consiguiente retirada inmediata de la instalación, en casos de desobediencia al requerimiento municipal y/o inhabilitación del establecimiento para la obtención de futuras autorizaciones reguladas en la presente ordenanza, durante el plazo de 2 años, a tenor de la gravedad de los hechos.

16.2. Si la instalación fuera legalizada posteriormente, y no se hubiese dado reiteración, o resistencia a los requerimientos municipales, la sanción se podrá limitar a la sanción económica.

Artículo 17. Graduación de la sanción.

Para graduar la cuantía de las respectivas sanciones se valorarán conjuntamente las siguientes circunstancias:

a) La naturaleza de la infracción.

b) La gravedad del daño producido y potencial. Perjuicios causados a particulares y repercusión social de la infracción.

c) La conducta dolosa o culposa de la parte infractora.

d) La reincidencia o reiteración en la comisión de infracciones.

Artículo 18. Expediente sancionador.

Las sanciones que procedan solo podrán imponerse previa la instrucción del correspondiente expediente, que será tramitada de conformidad con lo dispuesto en la Ley 2/1998 de 20 de febrero de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma Vasca.

Artículo 19. Ejecución subsidiaria.

19.1. Cuando la persona responsable de la instalación hiciera caso omiso de la orden municipal de retirada de elementos instalados en la vía pública, la cual se fundamentará en los supuestos previstos en la presente Ordenanza, la Administración podrá proceder subsidiariamente al levantamiento de los mismos, quedando depositados en el lugar designado para ello, de donde podrán ser retirados por la propiedad, previo abono de los gastos correspondientes, todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 98 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre sobre el Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y sin que ello dé derecho a indemnización alguna.

19.2. Artikulu honetan zehaztutakoaren arabera kendutako elementuak ezingo dira hilabete baino gehiago gordeta jaso. Epe hori igaro ondoren interesatuak ez balitu eraman, Udalak elementu horiek desegin, saldu edo beste norbaiti utzi ahal izango dizkio.

AZKEN XEDAPENAK

1. Testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara ematen denetik hamabost lanegun igarotakoan sartuko da indarrean Ordenantza hau.

2. Udal agintaritzari espresuki baimena emango zaio lizentziak emateko, eta ordenantza interpretatu, argitu eta gartzeko, beti ere administrazio prozedura erkidearen gaineko legerian jasotako oinarriak kontuan hartuta.

ERANSKINA

— Kaleplazetan mahaitxoak eta eserlekuak jarri eta erabiltzea.

Taberna edo negozioaren arduradunak, Egun bakoitzeko euro bat ordaindu beharko du.

19.2. Los elementos que hayan sido retirados conforme a lo dispuesto en el presente artículo, no podrán permanecer almacenados durante un plazo superior a 1 mes, transcurrido el cual sin que por parte de la persona interesada se hayan retirado, el Ayuntamiento podrá proceder a su destrucción, venta o cesión.

DISPOSICIONES FINALES

1. La presente Ordenanza surtirá efectos una vez transcurridos quince días hábiles desde la publicación del texto íntegro de la misma en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

2. Se autoriza expresamente a la autoridad municipal para el otorgamiento de licencias, a interpretar, aclarar y desarrollar la presente Ordenanza, conforme a los principios recogidos en la legislación sobre procedimiento administrativo común.

ANEXO

— Uso y ocupación de la vía pública con mesas y sillas.

Cada responsable de bar o negocio similar, deberá pagar un euro por día.